


# BERRIGARA

60. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1992, apirilak 10


## Erramu Zapatuko Feria



**Igerilekuak:**  
lanak bi  
hilabetetan



**Ttoparak:**  
800 haur  
kantari



**Xakea:**  
Euskadiko  
txapelketa

Burberrys  
Yuste  
Unicen  
Miguel Ibars  
Lider  
Exigency  
Punto Blanco  
Peyton

**Gizonezkoentzako jantziak**

# egizabal

oinetakoak

Firma guzti hauen abala daukagu

CAMPER  
Panama Jack  
Privata  
Runner  
Pons Q.  
Ferrerias  
Paco Herrero  
George's



# TELAETXE, S.A.

OIHAL ETA OIHAL PUSKAK



Aukera handia  
oihal eta oihal pusketan  
metroka zein pisura

Zetak, kortinak, toailak,  
Yakareak, izarak, Tapizak,  
e.a.


**LARUNBAT ARRATSALDETAN  
IREKITA**

Elgetarako bidea  
(Gasolindegitik 300 m.ra)

Tfnoa: 76 39 40 - 76 39 41 - 76 00 46  
Faxa: 76 56 38, 20.570 BERGARA

*poztu zaitez udabarria etorri da ta*

Zure denda  
berria ireki da



*Zubizarreta*

Ibargarai Hiribidea 4  
BERGARA

**GAUZA BEREZIAK**



# BONOFOTOA

**BERRIGARA**

*Jardun Elkartea*

1992, apirilak 10



M. A. Elkorobereizibar



## **Maria Pilar Agirre**

Maria Pilar Agirrek irabazi du oraingoan BONOFOTOko saria. 10.000 pzta eman diogu sari modura berak jarritako erantzuna, **Elizamendi baserria**, zuzena zelako.

Zorionak Maria Pilarri eta, besteok, segi jokatzten!!

*Zein da baserri honen izena?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

**Aste honetako saria : 10.000 pzta.**

**Errotalde Jauregia  
20.570 Bergara**



# LILURA

## Edertze institutua

Edertasuna osasuna bezalakoxea da.  
Bakoitzarena banan-banan zaindu  
beharra dago.  
Utzi ezazu benetako espezialisten  
eskuetan.



Bidekurutzeta 7,

Tfnoa: 76 31 71

BERGARA

OM 1224  
FM 99'8

# ENTZUN!

**HERRIZ HERRI**  
Larunbatero  
11.30 etan

HERRI Irratia



Radio POPULAR  
GIPUZKOA



# BERRIGARA

## Argitaratzailea:

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

## Laguntzailea:

Eusko Jaurilaritza

## Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

## Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

## Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

## Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Ellexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

## Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

## Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

## Copyright:

BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



**Bertso jaialdi** bikaina prestau da Erramu Zapataren inguruan antolatutako ekintzen barne. Goizean bertsolariak, ganadu feria, nekazal produktuen dastaketa, makinariaren erakusketa..., etab. Gauean, berriz, Lopategi, Jon Sarasua, Euzkitze, Egaña, Lizaso eta Peñagarikano Gipuzkoako txapelkunaren bertsoekin gozatzeko aukera. Larunbatean, 22.30etan.

## OSTIRALA 10

### • Kontzertua:

- *Bela Lugosi* eta *Requiem* gaueko 11etan Gazte-txean.

## LARUNBATA 11

### • Pelota partiduak:

- Arteaga/Ariznabarreta, Alustiza-Errandonea/Retegi II.-Retegi IV. eta Retegi III.-Buenetxea/Gabilondo-Astarloa, Pelotalekuan 16.30etan.

### • Kontzertua:

- *Etsaiak* eta *Arbol*, Gaztetxean 11etan.

### • Hitzaldia:

- *Islam: Herrien independentziarako bidea*. Hiz-

lari: Amir Abderrahman Vus. UNEDen, 11etan.

## IGANDEA 12

### • Pelota:

- Pala txapelketaren 2. ihardunaldia, goizeko 9etatik Osintxuko pelotalekuan.

### • Kontzertua:

- Udal Musika Banda, eguandiko 12.30etan Nove-dadesen.

### • Billar:

- Karanbola Txapelketaren finala, arratsaldez Oillagorra tabernan.

### • Erakusketa:

- Mikel Araiztegi eta J.M. Garitano, Kultur Etxean.

## FARMAZIAK



- 11 Estella
- 12 Estella
- 13 Mozos
- 14 Camacho
- 15 Puy
- 16 Guallar/Ruiz (Arrasaten gauzez)
- 17 Estella/Morales
- 18 Mozos/Irizar
- 19 Mozos/Ruiz
- 20 Camacho/Morales
- 21 Puy/Azkoaga
- 22 Guallar/Ruiz
- 23 Estella/Morales
- 24 Mozos/Español

## ZINEA



*Alas de mariposa*

• OSTIRALA: 22.30.

*El Rey Pescador*

- LARUNBATA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- IGANDEA: 17.00, 19.30 eta 22.15etan
- ASTELEHENEA: 19.30.

## OGIA



Konde Panaderokua

# BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



## Nafarroako Pirineoa, Itoizko urtegia

Gipuzkoarrok, betidanik, Nafarroara joan behar izan dugu bere mendiak eta ibaiertzak zeharkatzeko, bere ardo eta barazkiak dastatzeko eta bere bizilagunen laguntzaz gozatzeko. Nafarrek, era berean, Gipuzkoako itsasertzeko urak, txakoli eta sagardoa eta Iparraldetik "Europa" rako irteera bilatu dituzte.

Denbora pasa ahala, ohitura eta eremu hauek, bai herrialde batean bai bestean, aldatzen ari dira. Arrazoiak aztertu nahi ditugu, gure belaunaldiak mirestu eta gozatu baina baita ere hondatu ditugun lekuak arriskutan jartzen dituzten proiektuak ezagutu nahi ere.

Oraingo honetan Nafar Pirineoari begira gaude. Proiektu arriskutsuek mehatzatzen dute lurralde hau, bertako bizilagunen interesekin elkar jotzen dute, nonahi gatazkak sortzen dituztelarik.

Itoizko urtegia hontako proiektu erraldoi bat da. 1.990. urteko azaroan Madrilgo gobernuak bakarrik zazpi hilabete lehenago publikora atera zenean aurkeztutako 15.000 alegazioei kasurik egin gabe, proiektua onetsi zuen.

Nahiz eta etengabe eskatu, admi-

nistrazioak Itoizko urtegiaren zergatia; zertarakoa eta norentzakoari erantzun gabe jarraitzen du.

Hona hemen Itoizko urtegiari buruzko zenbait azalpen:

- Kokapena: Irati ibaian, Agoiztik gorako 2 kilometrotara.

- Ureztatzen duena: 1.100 hektarea, Artze aranean dauden Artozki, Muniain, Osa, Ulozi eta Usoz; Longidako Ezkai, Gorriz, Itoiz eta Orbaitz herriek desgertaraziz eta hurrengoak partzialki ukituz: Artzibarreko Artze, Larrabe eta Nagore, Longidako Aloz, Rala eta Oroz-Betelu, hiru erreserba natural barnean daudelarik.

Kalteturiko herriek eta biztanleek badakite arazo handi bati heldu diotela, interes ahalsuei aurre egin beharko diete. Baina borroka da, mamu erraldoi honen aurka daukaten tresna bakarra.

## Eguzki

### Adi Irakurleok !!

Aste Santuko oporrak gainean ditugu eta seguruenik gehienok, etxetik

kantopuzko zarete jai egun horietan. Horregatik, Ostiral Santu egunean ez duzue errebistarik jasoko.

Astebete Berrigara barik pasa beharko duzue beraz, baina hurrengo ostiralean, berriz ere zuen artean izango gaituzue.

Besterik gabe ondo pasa eta txintxo ibili!!

## Berrigara astekarla

### OHARRA:

Gutunak sailera bidaltzen diren eskutitzak 20-25 lerrotakoak baino txikiagoak behar dute izan eta bidaltzailearen izen-abizenak, nahiz eta izenorde batekin publikatu, eman beharko dira.

## Tiiira ba!



## Josu Okina



### □ Udal Banda

*Udal Musika Bandaren* kalejira eta kontzertua izango da igandean, hilak 12. Eguardiko 12.30etan Novedadesen izango den kontzertuan Bandak honako programa eskeiniko du: *Pol-Pol* (Miguel Glez. Bastida), *Egmont* (Beethoven), *Suite for winds* (J. Nowak), *El metrónomo de Maelzel* (Miguel Glez. Bastida) eta *Rikudin* (J. V. Der Roost).

### □ 45ko kintoak

Apirilaren 25ean 1.945. urteko kintoek beraien eguna ospatuko dute. Eguardiko ordu batetan meza izango da Sierbatan eta ondoren, ordubetan, bazkaria Gasparrenean. Izena emateak 3.000 pta. balio du eta interesatuek Jubilatuetara jo dezakezue, Angel Aperribaigatik galdetuz.

## Ekainera arte lanak izango dira kanpoko igerilekuetan

Joan den urtean kanpoko igerilekuetan hasi eta amaitu gabe geratu ziren lanak martxan jarri ziren asteartean. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Osasun Departamentuak ezarritako neurrietara erabat egokitzeko falta diren zenbait lan egingo dira oraingoan. Horrela, igerileku haundi zein txikiko hondoei % 2,5ko aldapa portzentzia izan beharko dute, ur isurbidea eta pizinen garbiketa errezteko. Era berean, iaz denbora faltagatik jarri ez zen baldosa jarri beharko da bi igerilekuetan.

Pizinetatik berdegutera joateko orain diren lorontzien artean ere, alde batera bakarrik zabalduko diren 3 atetxo jarriko dira alde bakoitzean; uretara sartu behar direnek, berriz, joan den ur-



tean bezala dutxetatik pasa beharko dute derrigorrez.

### 2 hilabete lanean

Udaleko Hirigintza Departamentuak bi hilabeteko epea eman dio *Culligan* enpresari lan hauek burutzeko. Joan den urtean izandako

arazoak errepika ez daitezen, lanak printzipioz ekainaren 7rako amaituta egon beharko dira.

Aurrekontuari dago-kionez, udalak onartu berri du lan hauen 20 milioi pta.ko aurrekontua, kopuru honi iaz inbertitutako 107 milioi pta.k gehitu behar zaizkiolarik.

## Hainbat aldaketa

Udaletxean egin beharreko berrikuntza lanek eragin nabarmena izango dute datozen bi urteetan herriaren bizitzan, dudarik ez. Guztiok jasango ditugun eragozpenez gain, hainbat aldaketa egin beharko dira: esate baterako, egunkari zein ONCE Itsuen Elkarteko kioskoak Banco Guipuzcoanoren alboan kokatuko dira, lanak hasi bezain laister. Bestalde, Udalak, bertan dauden komunak kentzea erabaki du, lanak oztopatu eta kamioien pisua jasango ez dutelako. Udaletxearen aurreko balla ere 7 m.ko distantziara kokatuko da larunabatetako merkatuaren postuak jarri ahal izateko.



# ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,  
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,

Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

# MINER Ardo onak, ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



□ **Txintxerrina**

*Txintzerrina Elkar-teak* udaleku irekietan lan egiteko begiraleak behar ditu. Interesatuak apirilaren 21etik 30era bitartean Martin Deunaren Enparantzan dagoen ludotekatik pasa zaitezke te izena emateko. 18 urtetik gorako bergarra izan eta euskara menderatzea eskatzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 763270 telefono zenbakira jo dezakezue.

□ **Hitzaldia**

*Amir Abderrahman Vus Zwane Zulu* Herriko Mphonbi kalanaren buruzagiak *Islam: Herrien independentzarako bidea* izenburuko hitzaldia emango du larunbatean, hilak 11, UNEDeko 3-4 gelan. *Abdelbasir Ojembarrena* Euskal musulmanen Murabitun komunitaearen emirrak egingo du hitzaldiaren aurkezpena eta itzulketa.



**Estanpa lehiaketa**

Aspaldiko ohitura berreskuratu nahian Udaleko Jai Batzordeak estanpa lehiaketa konbokatu du aurtengo Pentekoste jaierarako. Kuadrila ezberdinek antzetzuko dituzten estanpa hauen bidez Euskal Herrian zein munduan zehar gertatzen diren gauza bitxi eta aipagarriei umorez aurre egitea bilatzen da.

Taldeak gutxienez 10 lagunez osatuak izan behar dira eta epaimahaiak jai giroa eta orijinaltasuna izango ditu kontutan sariak banatze-

rakoan; horrela, 1.go saria lortzen duen taldeak 50.000 pta. eta trofeoa eskuratuko ditu eta bigarrenak 25.000 pta. eta trofeoa. Horrez gain, parte hartzen duen talde bakoitzari 20.000 pta. emango zaizkio dieta gisara. Izena emateko epea apirilean bukatzen da.

Estanpa lehiaketak orain 15 urte antzetzu ziren azkenengoz eta orduarte, koadrilen egunean, ekitaldirik ikusgarrienetakoa genuen. Orain, herritarren erantzunaren arabera, berreskuratu egin nahi da.

□ **Omenaldia**


Bergarako *Eusko Alderdi Jeltzaleak* *Juan Arretxe, Serafin Esnaola eta Jesus Mari Zamora* apaizei omenaldia eskeiniko die igandean, hilak 12. Meza izango da 12.30etan Monja Zaharretan eta 2.30etan bazkaria Batzokian. 2.500 pta. ren truke txartelak jaso daitezke Batzokiko tabernan.

□ **Oliver Twist**

*JARDUN Elkar-teak* haurrentzat antolatutako bideo emanaldi berria izango da larunbatean, hilak 11, goizeko 11etan Kultur Etxean. Oraingo honetan *Oliver Twist* bideoarekin primeran pasatzeko aukera.

□ **Odol emaileak**

*Gipuzkoako Odol Emaileen Elkar-teak* odol emate berri baterako deia egin du asteazkenerako, hilak 15, arratsaldeko 7etan Seminarioan.



**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 48 51

**DEPORTIVO TABERNA**

Tfnoa: 76 01 51

**TOKI-EDER**  
**Taberna**

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**KONDE**  
**PANADEROKUA**



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57





## Beira batzeko ontziak

Udaleko Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak beira edo kristala batzeko ontziei buruz egin berri duen ikerketaren emaitzak ikusita, Batzorde honek honelako *kanpai* gehiago jartzeko erabakia hartu du.

Dagoneko udalak baimena eman dio *Vidrila* enpresari herriko leku ezberdinetan ontzi berriak jarri eta beste zenbait lekuz aldatu ditzan. Azterketan antzeman diren beharren arabera, ondoko tokietan jartzeko premia ikusi du Hirigintza Batzordeak: Boni

Laskuraineko bazterrean (San Martzialetik josten), Zurraderokoa garaje berrien sarreraraino aldatzea, Bolun orain dagoena kale berean gorago jartzea eta beste bat, beherago, Koldo Eleizalden jartzea, Boluko Pelotalekuan beste bat (gara-jetarako sarreran), Domingo Iralan (herri barrurako), Harrizurín (Beheko Estazioaren inguruan), Zubiaurreko plazoletan berriak (zubi ondoan) eta, azkenik, Ozaetako aparkalekuan beste bat.

# Txinpartak

✓ **Pol-Pol Argazki Taldeak** *Bergara Hiria VIII. Argazki Lehiaketa* konbokatuko du Udala eta Diputazioaren laguntzaz. Partehartzaile bakoitzak 5 argazki aurkez ditzake koloretan zein zuribeltzean maiatzaren 22a baino lehen.

✓ **UNEDeko Hizkuntza Eskolak** ingeleseko ikastaro intentsiboa antolatu du apirilaren 27tik ekainaren 24ra bitartean. Izena emateko epea asteazkenean, hilak 15, bukatzen da.

✓ **VII. Literatur Lehiaketarako** lanak entregatzeko epea apirilaren 21ean bukatuko da. Lanak Udaletxean jasoko dira.

✓ **Karanbolen Billar Txapelketa** jokatu da larunbatean eta igandean, apirilak 11 eta 12, Oillagorra Tabernan.

✓ **Herri Batasunak** deituta, larunbatean, hilak 11, *Urrats Berri* prozesuko 7. bilera egingo da Arrano Elkartearen arratsaldeko 4retan.

✓ **Santi Arrietak** Eibarko Lankide Aurrezian prestatu duen eskultura eta zeramika erakusketa datorren igandera arte, hilak 19, izango da zabalik.

✓ **Novedadesen** filme hauek eskeinitako dira Aste Santuan: *El callejón del arco-iris* (apirilaren 15 eta 17an), *Terminator II* (hilak 16), *Free Jack* (hilak 18 eta 19an) eta *Bajo la Aurora Boreal* apirilaren 20an.

## MAKAILO

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15



Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

# URKIOLA

## Gizon eta emakumezkoen moda

Bidekurutzeta 42,

Tfnoa: 76 16 48

BERGARA



## Ibargarai kalea asfaltatu eta hobetu da aste honetan

Astlehenean hasi ziren Ibargarai kalea asfaltatu eta hobetzeko lanak. Joan den urteko proiektu hau hasiera batetan urtarreleko bigarren hamabostaldian burutu beharrekoa zen baina, proiektu berriaren arabera, bide erdian geratzen zen elektrizitate poste batek eta, eguraldi txarrak ere, atzeratu izan dute lanen hasiera.

Arazo horiek konponduta, Udaletxearen traspasoa burutzeko San Joseko zubian Barrenkale itxi zenez, beste atzerapen bat egin behar izan zuen Hirigintza Batzordeak.

### Lau karril

Hasierako proiektuan Bilintx liburutegitik Beheko Estaziñora doan tartea asfaltatzeko asmoa bazegoen, orain, asfaltatzeaz gain, barianteko bidegurutzearen inguruan lau karril egitea pentsatu da trafiko zirkulazioa errazteko. Horrela,



orainarte herrira eta bariantera sartzeko zehuzenez gain, beste bi karril egingo dira; bata Antzuolarako bidean dihoaztenek barianteko ilaran itxoin beharrik izan ez dezaten eta bestea Espaloiko aldapa igo behar dutenek erabiliko dutena. Bestalde, estaziño parean euria egiten duen egunetan biltzen den ura desagertarazteko ere isurbide bat egingo da.

Lan berri guzti hauek proiektua garestitu egin dute; aurrekontua 9 milioi

pta.koa izatetik 11 milioi ingurukoa izatera pasada. Eguraldiak lagunduta, asfaltatzea asteazkenean egin eta lan guztiak ostegunerako amaitzea espero zen.

### Euskal Bizikleta

Gogoratu bestalde, ekainaren 18an Euskal Bizikletaren 2. etapa (Gatika-Bergara) bertan amaituko dela. Hurrengo egunean, berriz, Donostia eta Bergara arteko etapa jokatuko da.

### Batzarra Aranzadi Ikastolan

Aranzadi Ikastolak, *Ikastolen Elkarteak* Euskal Eskola Publikoaren legearen gainean landutako lege proposamena gurasoei ezagutzera emateko batzarra konbokatuz en ostegunean. Azken egunotan *Buesa* Hezkuntza sailburu sozialistak kritikatu izan du lege proposamen hori, "diru publikoarekin eskola pribatu bat finantziatu nahi dela" esanez. Ikastolen Elkarteak aldiz, lege proposamen hori jakin erazi nahi du legearen eztabaidan bere eritziak kontutan har daitezela. Lege proposamenean, ikastolek, eskola publiko bat jestionatzeko ahalik eta autonomia gehienarekin eta, era berean, administrazio, guraso eta irakasleen artean titularidade konpartitua egotea eskatzen dute.

**ANTIA** HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**IBARGUREN PENTSUAK**

**Biona pentsuen biltegia.  
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

*Pepelu*  
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

**AFA - BI**  
**Manufakturak, S. L.**  
P.V.C. Arozgintza eta aluminioa  
Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA





## Kantu topaketa 26an

Joan den larunbatean aurkeztu zen Udaletzeko Pleno Aretoan apirilaren 26an gure herrian ospatuko den Gipuzkoako Haurren IV. Koral Eguna. Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak, Aritzeta eta Udaleko ordezkariak egun horretako egitaraua eta antolaketaren berri eman zuten; goizeko 9.30etatik aurrera izango diren ekitaldietan musika izango dugu protagonista, eta gero ordubateko kontzertu nagusian, abesbatz guztiak Alfredo Gonzalez Chirilaquek eta Juan Martin Elexpuruk

elkarlanean landutako *Udaberriko Txoria* izeneko kanta abestuko dute.

Aritzetak eskerrak eman zizkien Udalari (eta bereziki V. Gallastegiri), eta hainbat laguntzaile eta elkarte gastronomikori, etorriko diren 19 abesbatzetako haurrek (800 inguru) elkarte ezberdinetan bilduko baitira bazkaltzeko.

Topaketa honek 3 milioi t'erdi pta. inguruko aurrekontua du eta Udalak, bere aldetik, milioi t'erdi pta. ko dirulaguntza eman du.

## Haurren Koral Eguna

Nagusien Ttoparak Gipuzkoako abesbatz guztiak elkartzen zituela, eta honek izugarriko aberastasun musikala suposatzen zuela ikusiz, haurren abesbatzak batuko zituen era bereko egun bat antolatzea pentsatu zen.

Horrela, 1.988an Irun animatu zen Gipuzkoako haurren 1. go koral Eguna aurrera eramateko, 89ean Azpeitia eta 90ean Legazpia.

Egun honen antolaketak eta honek suposatzen duen harreman estutzeak zuzendarien aldetik batez ere, eta Gipuzkoako Abesbatz Elkarteak antolatzen dituen koral zuzendaritzari buruzko ikastaroetan gertatzen diren zuzendari gehienen irteera haur abesbatzak izanik, edizio batetik bestera haur abesbatzen mundua ugaltzen eta indartzen joan da.

1.990ean haurren kopurua gora zijoala eta diru

kopuru handia suposatzen zuenez, ez zen inor animatu egun hau aurrera eramatera.

Aurten ere Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak egun hau ospatzeko inbitazioa bota zuenean, Bergarako Udalak baietza eman zion eta ondoren Aritzeta Abesbatza prest agertu zen antolatzaile gisa. Hau dela eta, Gipuzkoako Haurren IV. Koral Eguna gure herrian ospatuko dugu, bertara 19 herritako haurrek etorriko direlarik. Jadanik makina bat pertsona antolakizun lanetan hasia da.

Egun honetan, haurren inguruan musikaz gozatu dezagun da gure asmoa, ia lortzen dugun!!!



Izaskun LABAIEN



*Las Postas*  
KAFETEGIA - JATETXEA

Logroñorako bidean (Gasolindegian)  
Tfnoa: (941) 10 02 85

LAGUARDIA  
(ARABA)

**LXUKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA



*zumelaga*  
**JATETXEA**

San Antonio 5 BERGARA  
Tfnoa: 76 20 21

**ARDATZA**

*Brikolaketa*

**ATEAK  
eta  
HORMA  
ARMAIRUAK**

Mahasterreka 4  
☎ 76 18 93



**ESPOLON**



**School of English**


**BBB, UBI, Hizkuntza Eskola Ofiziala eta Cambridgeko Unibertsitateko azterketetarako presentatzeko talde bereziak.**  
**PET azterketetarako matrikulatzeko ikastegi ofiziala.**

Informazio gehiago goizeko 10etatik 12.30etara eta arratsaldeko 3retatik 4retara 76 03 53 tfnora deituz.

Ibargarai 31, Tfnoa: 76 03 53 BERGARA

# Biltoki

**GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!**



Sukalde eta bainugelarako mobleria  
 Diselnuia eta goimallako kalitatea  
 5 urteko garantia

San Pedro z/g  
 Tfnoa: 76 34 00

**PHILIPS**



Teknologia eta diselnua  
 TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-LINEekipoak  
 K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6  
 Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzarriak eta gazteentzakoak  
 Alfonbrak. leiho-oihal, narruzko sofak,  
 tapizak,...  
 apaingarriak

San Martin 2  
 Tfnoa: 76 43 51




**BRUNET MERKATALDENDA**

**DESBROZADORAK**

**Husqvarna**

**ORAIN**  
**49.887**  
 BEZA BARNE



235R

**LEHEN**  
**77.368**

*Garbi ezazu  
 zure ortua  
 nekerik gabe*

**ORAIN**  
**69.825**  
 BEZA BARNE



240R

**LEHEN**  
**95.097**



245RX

**LEHEN**  
**104.984**

**ORAIN**  
**65.814**  
 BEZA BARNE

Ozaeta 11-13 Behea

Tfnoa-Faxa: 76 31 52



# Soledadeko ermita berria

**B**ergarako ermitak erdi arokoak dira, bat edo beste kenduta behintzat; azkeneko gutxi horien artean Soledadekoa dago, 1.644 garren urtean egina. Ez dakit zeharo konturatzen garen ze garaitan ipini behar ditugun; atera ditzagun kontuak San Migelena 600 urte lehenago bazegoela. Soledadekoa, beraz, berria da.

Bernardo Errekalde, abizen bereko jauregiaren nagusia, Bergarako alkatea zen eta, bere gurasoan aginduei jarraitzeko asmoz, ermita bat altxa nahi zuen. Hona hemen ermitak egiteko beste arrazoi bat gehiago. San Pedroko Elizatik eta Mizpildi ingurutik gurutzbide bat zegoen Altamira izeneko lekura, eta Bernardok ermita hori, gurutzbide horren bukaeran, Altamiran ja-

sotzea erabaki zuen. Hortik egokitu zitzaion Soledadeko Amabirjinaren izena berari ematea.

1.644an egin zen, dena Bernardo Errekaldearen kontura egin ere, tartean Soledadeko Amaren irudia zegoela; hau gaur Monja Berrietan dago: burua eta eskuak tailatuak ditu, eta gainerakoa arropak jazteko armazoi bat besterik ez da. Debozio haundia zaio, Ostiral Santutik Pazko egunera arte, batez ere. Orain urte batzuek baserritarrek oïlaskoak eskeintzen zizkioten opari gisa.

1.645ko apirilaren 14a Ostiral Santua zen. Egun honetan Soledadeko Amaren irudia ermita berrira eramana izan zen, Bergarako karrketan prozesioan ibili ondoren. Aurretik, astelehenean, ermita bedeinkatu zen. Behin baino gehiagotan, gero ere, jaitsi izan zuten



Soledadeko Amabirjina izurritearen aurka egin ziren otoitz eta prozesio-etara, bere babesa aurkitu nahian.

Ermita herriarentzat gelditu zen. Bernardo Errekalde alkateak ez

zuen inolako eskubiderik gorde, eta eskutitz bat izenpetu zuen hori adieraziz.

*Imanol Sorondo*

## PRiMi

• Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .

• Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90

San Antonion Tfnoa: 76 21 08

Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

## Kabia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

## Tximak

*Ileapaindegia*

Fralkozuri 3, Tfnoa: 76 56 69



## LASA JATETXEA

Orain ostiral eta larunbat gauetan zabalik

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29





# Erramu Zapatuko Feria

larunbatean ospatuko da Bergaran

Zenbait arazorengatik azken urteetan galdutako indarra berreskuratzeko helburuarekin, larunbat honetan ospatuko da Bergaran Erramu Zapatuko Feria. Inguruko ganadu tratante, nekazal makinaria saltzaile e.a.ek, herriko kaleak girotuko dituzte; bertso saioak edota herri kirolak ere izango dira.

Garai batean bailarako feria garrantzitsuena izan zenak azken urteetan izan duen aldaketari buruz eta larunbaterako iragarri diren ospakizunei buruz dihardugu erreportai honetan.

Bergara eta inguruko herrietako baserritarrek euren ganadua, nekazal makinaria saltzaileek azkeneko nobedadeak eta auto kontzesionarioek mendiko kotxeak erakutsiko dituzte Erramu Zapatuko Ferian. Horiez gain, txakoli, sagardo edota txerriki salmentarako jarritako postuek

eta bertso saio eta herri kirol neurketek girotuko dute eguna.

### Egun guztian zehar

Goizeko bederatzietan emango zaio hasiera feriarri. Ibargarai kalean eta Seminarioko patioan jarriko dira animalia, ne-

kazal makinaria eta mendiko kotxeen erakusketarako postuak. Simon Arrieta plazan, berriz, ogi, gazta, txakolin, sagardo, txerriki e.a. en salmenta izango da. Aipatu behar da goizeko 8etarako Ibargarain aparkatutako kotxeak kendu egin beharko direla eta frontoitik mer-

katurantzako pasabidea Zurradero kaletik zabalduko dela.

### 40 ganadu buru

Ganadua Ibargarai kalean jarriko da. Ugarrixako Behi-alde kooperatibak eta Bergara, Elgeta eta Udalako baserritarrek, batez ere Pirinaika, Friso eta asturiar arrazako 40 buru inguru ekarriko dituzte feriarri. Gehienak behiak izango badira ere, ardi eta aharriak ere izango ditugu ikusgai. Ganadu buruko 12.000 pezeta eta garraioa eta bazkaria ordainduko zaie baserritarrei.

Seminarioko patioan, bestalde, oilo eta erleentzako postuak jarriko dira erdialdean, eta alboetara, berriz, nekazal makinaria eta mendiko kotxeak izango dira. Bergarako Altuna eta Brunet nekazal makinaria saltzaileak ez ezik, kanpotik etorritakoak ere egongo dira. Eta mendiko kotxeen salmentari dagokionez, Bergarako auto kontzesionario guztien presentzia ziurtatu da.

Esan beharra dago goizeko 9,30etan hasi eta eguerdiko ordu biak arte, animalien erakusketa izango dela, eta salmentak, ostera, arratsaldean egingo direla. Aurten ez da lehiaketarik antolatu.

Animaliak Ibargarain eta Seminariokoan jarriko

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxitegia  
San Pedro 11  
Tfnoa: 76 51 65

**YAZKI**  
UME GAZTE  
Neska eta Mutil  
Irizar 3 Ibargarai 8  
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

**IZADI**  
PILI GISASOLA  
Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua  
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83



badira ere, Simon Arrieta plazako arkupeetan, ogia, gazta, txakolina, sagardoa, patea eta txerrikien salmentarako 40 bat postu egokituko dira.

Honez gain, egunean zehar, bi bertso saio antolatu dira: eguerdiko 1,30etan, Gorrotxategi eta Egileor aitak Seminarioan eskeiniko dutena alde batetik, eta Lopategi, Peñagarikano, Egaña, Euzkitze, Lizaso eta Jon Sarasuak gaueko 10,30etan pilotalekuan emango dutena bestetik.

Herri Kirolak ikusteko aukera ere egongo da: arratsaldeko 5,30etan Seminarioan.

### Galdutako indarra berreskuratzea

Bergarako Erramu

Zapatuak antzina izan zuen ospea galdu egin da azken urteetan, arrazoi bategatik edo bestegatik, gero eta ganadu gutxiago ekarri izan da Bergarako feriara. Iaz, feria berrindartzeko ahaleginak egin ziren, baina perineumonia izurritea zela eta ez zen ganadurik egon.

Aurten, galdutako indarra berreskuratzeko ahaleginak egin ditu Udalak. Erronka, datozen urteetara begira, Elgoibar edota Abadiñoko ferien maila berdina lortzea da, eta oinarriak finkatzen hasi dira dagoeneko. Larunbaterako egitarau zabala prestatu da eta inguruko herrietako ganadu tratanteak Bergarara hurbilduko direla espero dute antolatzaileek. Eguraldiak laguntzen badu...



Orain dela 27 urteko argazkia da. Garai hartan, Erramu Zapatuko feriaz gain San Martinetan ere ganadu feria haundia antolatzen zen. Rufino Zenitagoia zenak, Felix Laskurain orduko alkatearen eskutik lehiaketako saria jasotzen.

## Kaletarrendako feria

Lehendik hona gauzak asko aldatu dira. Erramu Zapatuko feria ez da orain baserritarren feria haundia, ez da urtean zehar hileko bigarren martitzetaren egiten ziren feria guztiei txapela jartzeko ziena. Oraingo Erramu Zapatuko feria ez da baserritarrentzat egina, orain ez ganadurik salduerosten, ez da urterako behar diren material eta erramintarik erosten.

Erramu Zapatuko feria, gaur egunean, kaletarrentzat pentsatua da, batez ere. Testimonio hutsa da, ekintza folklorikoa, eta bertan, urtean behin, baserritarra konturatzen da badagoela sektore bat baserriak dauzkan arazoan inolako berririk ez duena, arazorik izan dezakeenik ere pentsatzen ez duena, baserri tradizioz garbienen gordeleku hutsa balitz bezala hartzen duena.

Gaur egunean, Erramu Zapatuko ferian, kaletarrari folklorea eskaintzen zaio, arraza eta mota desberdineko ganadua erakusten zaio, janari edari "tipikoak" ematen zaizkio probatzeko (as-

kotan baserrian sortu edo eginak ere ez direnak), herri-kirol saioak eskaintzen zaizkio, etab. etab. Protagonista ez da, dagoeneko, baserritarra. Denboraren joanak eta gizarteak arlo guztietan izan duen garapenak horretaraxe eraman du Bergararentzat hain egun seinalatua izan zen hau.

Ez da negarretarako unea, badakigu Erramu Zapatuko feria ezin dela lehengo bera izan. Gehiago esango nuke, izan ere ez duela izan behar uste dut, besteak beste, sektoreak gaur egunean duen egoerarekin eta antzematen zaion etorkizunarekin ezinezko izango litzatekeelako. Erramu Zapatua izan zenetik gaur egun denera eman den aldaketa azaldu nahi izan dut, besterik gabe. Protagonista ez da lehengo bera.

Jose Maria BORJA



**LAZKANO**

**OINETAKOAK**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

**BOLINTXO**

*Kirola egiteko behar den guztia*

Ibargarai 10,  
Tfnoa: 76 38 32



## ANTZINAKO ERRAMU ZAPATUAZ...

### Donato Iburgurenekin

Donato Iburguren, 71 urte, Goi Auzoko Zaldumendi baserrikoak makina bat Erramu Zapatu ezagutu ditu. Antzinako Erramu Zapatuko feriaren eta gaur egun ospatzen denaren artean alde handia dagoela esan digu: urteak joan ahala baserriak jasan duen beherakadak feriaren maila jeitsieran eragin zuzena izan omen du. Hala eta guztiz ere, larunbatean ez du hutsik egingo eta ganadua gertu-gertutik ikustera Iburgarai aldera hurbilduko da.



## "Gaur egungo Erramu Zapatuko Feria artifizial xamarra da"

- Baserritik bizi izan zara beti?

- Bai, dena dela fabrikan ere lanean ibilia naiz, gerra denboran, esaterako, algoneran aritu nintzen, baina urterik gehienak hemen pasatu ditut, hementxe sortu, hementxe bizi..., eta geure ordu gehienak hemen joan dira.

- Eta gaur egun atera ahal daiteke bizimodua baserritik?

- Beno, jubilatuta gaude andrea eta biok eta tira, artean egiten dugu ortu pixkat, haragitarako ganadua eta hegaztiak ere badauzkagu..., horretxekin egiten dugu aurra.

- Barazki, ganadu e.a.k kanpora saltzen dituzue?

- Bai andrea egunero jeisten da kalera, baina merkatu plazan ez ditugu saltzen, zapatuan izan ezik gero eta jende gutxiago joaten da eta. Nahiago dugu furgoneta hartu eta kalean bertan saltzea. Esnerik, berriz, ez dugu saltzen, haragitarako ganadua dauka-gu bakarrik.

- Nola gogoratzen duzu zure gazte denborako Erramu Zapatua?

- Gerra aurreko Erramu Zapatua ezagutu nuen eta orduan feria handia izaten zen. Bergaran, 30 bat idi pare eta beste horrenbeste behi egoten ziren salgai. Tratanteak Asturias eta Santander aldetik etortzen ziren. Gasteizeraino trenean eta handik hona, berriz, oinez etortzen ziren. Euren egonlekuak bidean eduki-

tzen zituzten eta egunak ematen zituzten Bergarara etortzen. Bilboko Kastrejana eta Pipas tratanteak oso ezagunak ziren. Batek, Zubittako Txanponguaneko saltaian eta besteak Karloskuanean edukitzen zituzten ganaduak.

- Eta asko saltzen zen?

- Bai, bai. Erramu Zapatuz tratu asko egiten zen, baita bertako baserritarren artean ere. Pirinaikoak, hemengo bertako idi eta behi autoktonoak ekartzen ziren. Orain erre kara begira dauden frontoiko plazako etxe horietan ipintzen zituzten.

- Zuek zeuek Erramu Zapatu egunean ganaduak erosten zenituzten?

- Idiren baten beharra izan ezker, etxeko idi zaharrak

haragitarako saldu eta, normalean Asturiasetik ekartzen zituzten idi gazteak erosten genituen. Aukera orduan egoten zenez, tratu bidea izaten zen Erramu Zapatua.

- Urteetan zer eboluzio antzeman diozu zuk Erramu Zapatuko feriarri?

- Askok aldatu da. Lehen, feria berez egiten zen, beharra zegoelako, hau da eskaera eta eskeintza zeudelako. Baina poliki-poliki galduz joan zen eta iritsi zen momentu bat ezer ez zena saltzen... Urteetan etenda egon da Erramu Zapatuko Feria. Orain dela zazpi bat urte, Udala berriz ere feria bultzatzen hasi zen, baina garai batean ez zegoen inoren laguntza beharrik, feria berez egiten zen eta orain, oster, artifizial xamarra dela uste dut. Baserria lehen zuen garrantzia galtzen joan den heinean, ganadu feriek ere pixkanaka-pixkanaka indarra galdu dute.

AGIRREBEÑA

Oinetakoak  
Erropa denda  
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69



## ... ERRAMU ZAPATUA GAUR.

Pedro Mari Leterekin

Pedro Mari Lete lantokia bere etxean bertan duen baserritar horietakoa da. Basalgoko Lesarri-goikoa baserrikoa, bizimodua behiek ematen dioten esnetik eta ortuko jenerotik ateratzen du. 45 urte ditu eta larunbatean, urtero Erramu Zapatua iristen denean egin ohi duen moduan, kalera etorriko da ferian erakusten den jeneroa ikustera.



### "Ez dut uste Erramu Zapatuko feriak behera egin duenik"

- Zertatik ateratzen duzue bizibidea?

- Ardiak gehien bat eta baita ganadua ere. Gero, ortutik ateratzen ditugun barazkiak. 150 bat ardi eta ganadua hamar bat buru ditugu. Etxean, emaztea eta biok, bi seme-alaba eta ama bizi gara.

- Non saltzen dituzue produktuok?

- Arrasateko eta Plazentziako merkatu plazatara eramaten ditugu barazkiak eta Bergaran, ostera, dendatara saltzen ditugu. Astelehena kenduta, beste egun guztietan

joaten gara merkatura.

- Eta behi esnerik saltzen duzue?

- Bai, zentralera saltzen dugu. Bi egunetik behin kami-oiarekin baserrira bertara etortzen dira eta zisternetan batzen dute. Lehen LANari saltzen genion, orain, IPAR-LAT taldeari. Ardi esnea ere saltzen dugu, baina hori zuzen-zuzenean kalean saltzen dugu: harategietan eta beste-lako dendetan.

- Eta zergatik saltzen duzue zentralera, errentagarrigoa delako beharbada?

- Argi dago zentralera merkeago saltzen dugula, zuzenean saldu ezkerogaresti-ago saldu behar da eta diru gehiago atera daiteke, baina eskulana ere askoz ere haundiagoa da, horregatik, lana erraztearren zentralera saltzen dugu.

- Merkatura gero eta jende gutxiago joaten dela uste duzue?

- Gehienek hori esaten dute baina lehen beste jende joaten dela pentsatzen dut.

- Zer motatako jendea joaten da merkatura?

- Denetarik. Arrasaten, esate baterako, lehenengo orduan, lanera joan aurretik, asko etortzen dira baita gazteak ere; hala ere helduak gehiago izaten dira. Plazentziako merkatua, bestalde, ikaragarri jeisten ari da. Itxura denez, Eibarrera joateko joera hartu du jendeak han aukera gehiago duelako.

- Erramu Zapatukoa bezalako egunek balio al dute baserritarren eta kaletarren arteko harremanak indartzeko?

- Ez asko. Gezurra badirudi ere, beste edozein egunetan Erramu Zapatuan baino harreman haundiagoak izaten dituzte kaletarrak eta baserritarrak.

- Hortaz, baserritarrentzako feria da Erramu Zapatua?

- Bai, baina kaleko jende asko ere agertzen da, gehien bat kalera bizitzera etorritako baserritarrak etortzen dira.

- Traturik egiten al da?

- Gaur egun salmentarako baino gehiago, erakusketarako egiten dira feriak eta tratuak, ondorengo egunetan egiten dira.

- Azkenaldian feriak behera egin duela uste duten horietakoa zara?

-Orain dela urte batzuk berriz ere antolatzen hasi zenetik, urtetik-urtera ganadu gehiago batu izan da. Ez dut uste feriak behera egin duenik. Nik neuk 10 bat ardi jarriko ditut erakusgai.

**MAHER**  
Biltegiak L.E.  
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

*Kailash*  
**Zentro Esoterikoa**  
Parasikologi Zientzien Instituto  
Hispano Amerikarrean diplomatutako  
profesionalak.

• Tarot-a • Hipnosia • Erresonantzia  
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

**ileapaindegia**  
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55



## Zubiberri

Sagardotegia


- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

## Erramu Zapatuko Ferian parte hartzen duzu?




Lolita Egia  
71 urte, etxeoandrea



Pako Gabilondo  
58 urte, langilea

Bai, urtero, oso giro ona egoten da eta, baina antzinako Erramu Zapatua askoz hobea zen.

Bueltatxo bat ematera, kuriosidadez joaten naiz. Orain dela 40 urte ganadu gehiago egoten zen.



L.M. Etxeberria  
35 urte, langilea

Normalean lana egiten dut eta ez dut joateko astirik izaten. Orain dela urte batzuk joan nintzen eta ondo zegoen.



Petri Martínez  
33 urte, etxeoandrea

Tabernan lan egiten dudanez ez naiz feriara joaten.

**FS** oto istema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

# XALO

## Izozkiak Kafetegia Gozotegia

Gosariak  
eta  
Askariak

Ordutegia:  
Goizeko 7etatik  
gauko 9etara  
I Gandetan:  
goizeko 11etatik  
gauko 9etara  
Tfnoa: 76 06 28  
Simon Arrieta 3





## Kuba (I)

Kuban egon ondoren, irlari buruzko ikuspegia ez da hemendik daramazuna. Han ez daukate ezer, baina gustora bizi dira. Premia haundiena gasolina falta da, baina hori bai, umorea ez dute galdu eta imajinaziorik ez dute falta zailtasun haundienei aurre egiteko.

Gasolinarik ezean, "karroak" jubilatu eta Txinari bizikletak erostea erabaki zuten, baina "iparramerikanoak" ezin muturrak sartu gabe egon. Txinako fabrikari bizikletak hiru edo lau aldiz gehiago ordainduz, itxi egin zuen Kubarako iturria. Gaur egun, bizikletak Kuban egiten dituzte.

Orain gutxi arte bizikletak pribilejioa ziren. Orain kale eta bideak bizikletaz beteta daude eta Turis-taxistek, astoak bizikleta gainean dabilzala diote, nobatoak direla alegia.

Kuba krisi egoeran dagoela garbi dago, egoera larriagoan iaz Europa ekialdean eman ziren aldaketen ondoren, baina hau ikusi eta entzunda beraiek egoera hori blokeoari leporatzen diote.

Kubak ez du laguntza askorik behar hirugarren munduko beste herrialde gehienek bezala. Blokeoa kenduz gero, aberatsa litzateke. Bitartean, kubarren izaera eta pentsatzeko modua da aberastasun haundikoa. Badugu zer ikasi. Tristeia litzateke Kuba bezalako gizarte bat desagertzea.

**Jon Altuna**



## Erramu Zapatuko feria

Aurtengo Erramu Zapatuko ferian izango dugun berezitasun nabarmenena ganadu erakusketarena izango dugu. Iazko ferian perineumonia izurrite baten ondorioz falta izan zen ganaduak ez du hutsik egingo eta azienda mota ezberdinak izango ditugu: esne behiak, abelgorriak, ardiak, e.a.

Era berean, esan beharra dago, ganadu feria edo salmenta izango dugula eta arraza ezberdinetako aziendak izango ditugula.

Entzuna dut, orain dela urte batzuk, Erramu zapatu egunak jende ugari ekartzen zuela, gehienbat nekazariak. Txarlatanak ere hementxe izan genituen, baina garrantzi haundiena ganadu feriak eta idi probak omen zuten.

Beste herrialde batzuetan, berriz, maiztenzen dira egun berezi hauek eta hortxe ditugu Santo Tomas eguna, Elgoibarko Urte Zahar feria, Debako Zoro feria, e.a.

Aurten, ordea, Udaletxeak apostu gogor bat egin du, eta bultzada gogor baten ondorioz, egun honi dagokion maila eman nahi zaio.

Erramu Zapatua, batez ere, nekazal munduari eskeini nahi zaio, hau da, alde batetik nekazariak lagun artean egun alai bat igaro dezatela eta bestalde baserri giroa zabaldu nahi da bere produktuak erakutsiz, eta azken batean baserriarren kezka eta kaletarren eskaerak jasoz, harreman estu eta tinko bat edukitzea behar beharrezkoa delako baserri ingurua mantendu eta indartzeko.

**Ioseba Aizpurua**



## KORTA-ZAR

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibartekoen  
espezialitatea**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

## ARREGI

**Eraikuntza  
materialeak**

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaraita Auzoa


## AGOITZ

**Tapizdenda**

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K



I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22



# Beheko Taberna

Menestra eta konejoo  
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



## Argazki ederrak!!

Argazkian duzuen hori **Benito Canterori** Herri mailako diapositiba lehiaketa irabazteko balio izan dion argazkietako bat duzue. Aurkeztutako 34 kolezio sorta eta 204 diapositibak ikusi ondoren, epaimahaiak lehen saria Benito Cantero bergararrari ematea erabaki zuen. Bigarren saria, *ex aequo*, **Jose Agustin Gurrutxaga** eta **Arantxa Aranzabalentzat** izan da eta hirugarrena **Imanol Mondragon** eta **Ion Markok** eskuratu dute. Otsailean emandako argazki ikastaroan parte hartu zutenetik, berriz, **Jose Aguayo** eta **Nere Amaia Laskurain** izan genituen onenak.

## Aupa!!

A biada haundiz etorri zitzaizkigun ostegunean **Euskadiko I-tzuliko txirrindulariak** Elusutik behera. Jende ugari kaleetan txirrindulariak animatzen eta



bakoitzak, nola ez, bere gustokoenei ohiukatzen. Bitartean, erak jo eta fuego, lidergoa **Rominger** suizarrari kendu nahian. Eta udal langileak, goizean batxeak konpontzen bide erdian. Eskerrak ez zirela aurrerapenarekin heldu...

# ANDUZU

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

# Hagin klinika

*Idoia Iriarte Irureta*

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65



# GAZTELV S.A.

## Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA





□ **Margoak eta eskulturak**

Datorren asteartera arte, hilak 14, ikusgai izango da Kultur Etxean **Jesus Mari Garitano** eta **Mikel Araiztegi** bergararren erakusketa. Mikel Araiztegi hainbat margo eta eskultura agertu ditu. Jesus Mari Garitanok, berriz, orain urtebete inguru margotzen hasi eta bere lehen erakusketa duen honetan, Euskal Herriko hainbat paisaia azaltzen dizkigu, 13 margotan. Ostiraleko inauguraketan arrakasta handia izan zuten koadro eta eskulturek...


□ **Erramuak**

Ohiturari jarraituz, **Gotzon Barrenetxea-Arandok** Erramu Domekan bedeinkatu eta bere lagunei emango dizkien egurrezko gurutzeak egin ditu aurten ere. Tamainu ezberdineko 2.000tik gora landu ditu Gotzonek, 500 lanordu inguru eginaz. Orain, mustruke banatuko ditu lagun, monja, tabernari, gidari, kanpotar eta beste hainbat jenderen artean. Meritu handiko lana eta lagunek eskertuko diotena, dudarik ez.




**Zertan dihardute ba?**

MARIA DOLORES LETE



44 urteko bergarar hau Udal Euskaltegiko behin-behineko zuzendari berria izango dugu Aste Santutik aurrera, Magisteritza, Euskal Filologia adarrean, Eskoriatzako Eskolan ikasi zuen eta 10 urte eman ditu Udal Euskaltegian.

MARIJE UNAMUNO



Aurretik bertan lan egiten zuen 27 urteko bergarar honek, Udalak lehiaketa publikora atera zuen *Enplegu Teknikari* lanpostua eskuratu berri du proba guztiak gainditu eta gero.



**LIZAR**

**Altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**MEKOLALDE  
TABERNA**

☎ 76 50 18  
Mekolalde

**Ostegun eta Ostiral Santu egunetan itxita egongo da.  
Barkatu eragozpenak.**



## Umore giroan

### Kayetano peskan

Juan zan Kaitxano Matxari erre kara aingira billa. Jaso ditxu frakok, atara dau boltsikotik tenedorra, eta, ur txikietan sartuta, badabil aingira billa. Onetan ikusi dau arraiña, makurtu da beriala tenedora sartzeko eta zast! jausi jako erlojua uretara.

An zeguan ezagun batek diñotsa:

- Kaitxano! erlojua jausi jatsu uretara!

Ta Kaietanok:

- Orrek ez najok arduratzen. Erlojuak etxeztak iges eingo, aingiriak bai!

\* \* \*

### Orrek alfabetua jaukak

Bazeguan Marino Urku-

suko itxurri aurrian bere lagun batekin, Txapastakin ziur asko. Orretan pasau da beste eibartar bat euren aurretik oso gaixo itxura txarrakin.

Esaten dau bere lagunak:  
- Ori jota daok.

Eta Marinok:

- Jota bakarrik ez. Orrek alfabeto dana jaukak. "Jota" letra bat bakarrik dok.

\* \* \*

### Esango deuat etzi

"Felix Legarre" naiko "astonomua" zan zer egualdi egingo zeban jakiten.

Beñ batian, etorri jakon bat adarra jo naixan:  
- Zu, Felix, bixar ze denpora eingo dau?

Eta Felixek:

- Esango deuat etzi.

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Bergara, lehena eta geroa

Bergara beste edozein herri bezalakoa da, Plaza bat du bere udaletxearen aurrean, etxe ederrak, hain aspaldikoak ez diren aztarnak gordetzen dituzten kale zaharrak, eliza nagusia eta konbentua. Harreman lekua da, bibentzia eta agur lekua. Leku honek bere Historia du, maiuskulekin, eta bere istorioak. Eta hala ere guzti hau aldatzen ari da, ihes egiten uzten diogu apurka-apurka gauzak aldatu egiten direlako, jendea aldatu egiten delako eta geure begibistan gure herri txikia, betikoa, itxuraz aldatzen ari da, etxe zaharren lekuan beste berri "moderno eta egokiago" batzuk eraikz.

Bidekurutzeta da adibide bat. Inguru hau errabala izan zen, Erdi Aroko agirie-

tan errabal bezala azaltzen den lehenengoa. Eta aldatzen ari da hedapenaren inertzia, gutariko inork ez dakielarik zer gertatzen ari den.

Eta herri dotorea dela pentsatzen jarraitzen dugu, ondo sustraitua, konturatu gabe poliki poliki hainbat gauza galtzen ari dela, beste herrietatik bereizten zuten hainbat gauza txiki.

Hala ere Bergarak lehengo hura izaten jarraitzen du, Alfontso X.a errege gaztelarrak 1.268an fundatu zuen hiri hura.

Amaia Basterretxea

ELKAR 

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoe: 76 29 65

BERGARA

Mujika  
Jantxidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

ATSEDEN ZENTRUA  
**LOKARTU**  
KOLTZOI-DENDA

Bideberri Ibiltokia z/G - Tfnoa: 76 05 01 BERGARA



□ **Eskalada**

*Beatriz Jimenez* eskaladoreak garai-pena lortu zuen joan den larunbatean Sestaon jokaturako Euskadiko kirol eskalada txapelketa-ren lehendabiziko proban. Gizonezkoe-tan, berriz, *Jose Antonio Mulas 7.* eta *Miguel Angel Mulas 9.* izan genituen. Hurrengo probak Beasain (apirilean) eta Bergaran (ekai-nean) jokaturako dira.

□ **Futbola**

Igandean Usurbili 3 eta leko emaitzarekin irabazi ondoren, astebukaera honetan *Bergarak* final berri bati egingo dio aurre Roca taldearen aurka Irunen jokaturako duen partiduan. Bi taldeok, Lazkaoren atzetik, sailkapeneko bigarren postuan dira.



**Futbola guztientzat**

Bergara Kirol Elkar-teak adin mugarik gabe-ko futbol txapelketa antolatu du. Ekain eta uz-tailean jokaturako den txapelketa honetan bi talde izango dira; A taldean, beteranoetan, 33 urtetik gorakoek jokaturako dute eta B taldean, berriz, hortik beherakoak sartu-ko lirerateke. Partiduak, 50 minutukoak, astebarru-an jokaturako dira Ipintzan liga modura eta talde ba-koitzak jokoan 3 jokalaria

federatu besterik ezingo ditu jarri.

Izena emateko Ago-rrosinera jo beharko du-zue apirilaren 30a baino lehen, 7etatik 9etara, jo-kalari bakoitzeko 500 pta. ordaindu eta taldekide guztien N. A. N. ren fo-tokopiak emanaz (18 jo-kalari gehienera). Talde guztiek ordezkari eta ar-bitro bana aurkeztu be-harko dute. Maiatzaren 7an ordezkarien batzarra egingo da.

□ **Pala txapelketa**

Igande honetan, hilak 12, 3. ihardunaldian, honako partiduak jokaturako dira: A multzoan; Martinez-Zangitu/Garitano-Garin (9.00), Alberdi-Gallastegi/Garmen-dia-Peñalba (9.50) eta Otaño-Ibarra/Txopi-tea-Guezala(10.40). B multzoan; Etor eta J. M. Laskurain/Albe-niz-Gallastegi (11.30), Etxebarria-Manzane-do/Etxaniz-Balzategi (12.20) eta Polanco-Gomez/Etxaniz-Iñarra (13.10).

□ **Saskibaloia**

Bergarako senior emakumezkoen 2. mailako saskibaloia taldeak garaipen oso garrantzitsua lortu zuen astebukaeran *Lanas Stop* taldearen aurka, aurrerapausu haundia emanaz sailkapeneko azken postuak uzteko.



**Burua kantsatzen**

Bergarako Xake Taldeak, Euskadiko Federazioa eta Udalaren laguntzaz, bere 20. urtemuga ospatzeko antolatu duen Euskadiko Xake Txapelketa apirilaren 20an hasiko da Kultur Etxean. Euskal Herriko 7 herrialdetako 30 jokalaria bilduko dira txapelketan, tartean Felix Izeta txapelduna, Mario Gomez, Patrice Etchegaray edota Martin Arriaran eta Andres Diez bergararrak. 1.800.000 pta. inguruko aurrekontua daukan, txapelketa honek 7 egun izango ditu eta partidak arratsaldeko 4retatik 10etara jokaturako dira.

**MEMESA**

**IRIMO**

**SKF**

*phantom*

Arrasate 79 42 22 Artxabaleta





### *Erramu Bedeinkatzea Angiozarren*

**G**arai batean indar haundiagoa izan zuen arren, oraindik ere bizirik dirauen ohitura bat agertzen zaigu erretratu honetan, erramu bedeinkatzerarena, alegia. Sahats makila, erromero eta elauntzez sorta egin eta hura bedeinkatu ondoren, makila horietatik gurutzeak atera ohi dira egurrari brintzatxo egin eta han ziria sartuz. Gero, brintza hartan erromero eta elauntz orritxo batzuk sartu eta gurutze txiki horiek etxeko atean, soroan, zaltegian, etab.etan jarriko dira urtean zehar gaitzik izan ez dadin.

Orain dela hogeit hamar urte inguruko argazki honetan pozik eta harro agertzen diren mutiko hauek angiozartarrak dituzue.

Hona hemen zeintzu diren ezkerretik eskumara: Jose Luis Errarte, Mikel Aranzabal, Alejandro Elizburu, Jabier Zarraoa, Jose Jabier Mikeo, Gorka Elorza, Jose Mari Zarraoa, Jose Anjel Arriaran, Alfredo Zanza, Fernando Marzana eta Karlos Marzana.

*Estepan Plazaola.  
Argazkia: Gorka Elorza.*

**SOLANA**

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA  
Tfnoa: Biltegia: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

**LETE**

**TOLDOAK**

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.  
☎ 79 23 83 ARRASATE  
☎ 76 12 24 BERGARA  
☎ (94) 681 76 19 IURRETA



**ETXEBIZITZA**

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsaldez).

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Bi apartamentu alokatzen ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Pisua salgai Urteaga kalean. Sukaldea, 3 gela, saloia eta bainu gela. Amueblatuta. ☎ 76 14 87.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua alokatzen dut herriaren erdialdean. ☎ 76 44 35.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

**SALDU-EROSI**

Mendiko bizikleta salgai, MENDIZ, Shimano DEOREKin ekipatuta. ☎ 76 52 30.

Collie txakur-kumak salgai. ☎ 76 64 83.

6-8 urtekoentzako Fondoko eski pare bat salgai. 5.000 pzta. ☎ 76 32 69.

Musika jotzeko bajo elektrikoa salgai. ☎ 76 35 01 (Unai, gauez).

Trabeslako esklak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Mendiko Kamet bota pare bat (44a) salgai. Oso merke. ☎ 76 24 64.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajearen. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Txamarra urdin eta berde koloretakoa galdu zait. Topatzen duenak dei beza lehenbailehen, mesedez, telefono honetara: ☎ 76 31 01.

GOLF GTI kotxea, SS. AB matrikula, salgai. Oso egoera onean (1.300.000 pzta). ☎ 76 04 22 (gauez).

**LANA**

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Neska batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 70.

Baserriko gizon gaztea behar dut nekazaritzako produktuak saltzeko. ☎ 76 12 21.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

**Hildakoak**

Jesus Mari Izuzkiza apirilaren 4an, 27 urte.

**Jaiotakoak**

Ainhoa Larrañaga Gutierrez apirilaren 2an  
Mikel Fuente Barrio apirilaren 5ean

**Jesus Mari Izuzkiza**



**Tartas**  
*"Pitus"*



Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin Gure oroimenean izango zara betiko. Ez agurrik ez adiorik gero arte baizik.

**HIRE LAGUNAK.**



**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA



# JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK




ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorentzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxe; 76 02 91. BERGARA

## Levi'sek baimendutako denda



# CRISTINA

Harruriaga z/g Tfnoa: 76 03 04 BERGARA

*Cristinan* era guztietako moda bakeroa!

Levi's • Caroché • Bonaventure